

Altza

Larraitz Garmendia (fnoo.: 943|391267)

altzako Gazte Elkartearen ekimena izan da bertsoeskola martxan jarztearena. Aspaldiko ideia zena gauzatu da azkenik auzoan. Horretarako Altzako gazteek laguntza ezinoh-bea izan dute: Aitor Mendiluze bertsolaria eta Hernaniko bertsoeskolako ardura-duna. Bi hauek buru belarri- aritu dira lanean egitasmo hau aurrera atera zedin. Emaiza iritsi da eta Gazte-luene izena jarri dioten bertsoeskola lehen urratsak ematen hasi da.

Ikastaroa ostiralero emango da, iluntzeko

Gazteak ere bertsoetan

20.00etatik 21.30etara. Bertsolariak dituen zenbait atal ikuituko dira: teknika landu, bertsolariaren historiari begirada bat bota, bertsoaioak antolatzeko jarraitu behar den bidea aztertu eta abar. Helburua Altzan bertsolari-tza sustatzea eta bapateko bertsoa lantzea da.

Interesa dutenentzat bilera izango da urriaren 20.00etan Altzako Casares kultur etxean.



Bertsoeskola berriak baditu dagoneneko 15 bazkide. Orain bertsoetan ikasi nahi dutenak bertara inguratzea besterik ez da falta.

Aiete

Helburua
Altzan
bertsolari-tza
sustatzea da

Ainhoa Torres (fnoo.: 943 467768)

Urriaren bostetik aurrera hasiko dira Etxadiko ikastaro berriak. Izena emateko epea irekita dago eta ikastaroetan parte hartu nahi duenak elkartetik pasa behar-

ko du. Iragarrita dauden ekin-tzak Kultur eta Emakumearen Patronatuak eta Gazteri Sailaren laguntzari esker antolatu dira. Ikastaroen prezioa hauen iraupenaren arabera izango da, baina erraztasunak emango dira ordain-

tzeko garaian.

Adin guztietarako ikastaroak egongo dira eta aurten, besteak beste euskal dantza, yoga, antzerkia, topaketa literarioak eta kitarra ikastaroak izango ditugu. Hala ere, aipagarria da oso «Salud a la vida» ikastaldia. Honen helburua osasunerako orohar kaltegarriak diren ohiturak baztertzea izango da. Ikastaro hau urritik abendura bitartean emango da ostegunero arratsaldeko 18.00etan eta hogeitau orduko iraupena izango du. Bazkideak ez direnek hamabost mila pezeta ordaindu beharko dute; bazkideek berriz, hamar mila.

Bestetik, eta leku eskasia dela eta. Axular Lizeoan eta Azkarate-Enean zenbait ikastaro egingo dira. Informazio gehiago jaso nahi izanez gero honako telefono zenbakira deitu behar da: 943 21 90 88.

Etxadiko ikastaroak




ALFREDO JAAR

Izan bedi argia.
Ruanda proiektua 1994 - 1998

Erakusketa
1998ko irailaren 15etik azaroaren 14ra bitartean

Ordutegia
Asteartetik larunbata arte: 10:30 - 14:00 / 16:00 - 20:30
Astelehen, igande eta jaiegunetan itxita



Koldo Mitxelena Kulturunea
Urdaneta kalea 9
Tfnoa.: 943 48 27 50. Faxa: 943 48 27 55
20006 Donostia
sala@kultura.gipuzkoa.net



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa